

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Dirubilketa Zerbitzua

Bilbon dagoen etxebizitza, garaje lekua eta ganbaradun garaje lekua enkantean saltzea

Ogasun zuzendariak, uztailaren 27ko 3208/2021 Ebazpenaren bidez, baimena eman zuen behean adierazten diren ondasun higiezinak enkante publikoan besterentzeko.

Adierazitakoa oinarri hartuta, eta Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Arautegi Orokorrak 176. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2021eko urriaren 4an ondoko hau eman zen:

“PROBIDENTZIA, agintzen duena enbargatutako ondasunen enkantea egitea, 2021eko azaroaren 16an, 10:00etan, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilletako bulegoan (Probintzia plaza, 13, behea, Gasteiz), Foru Dirubilletako Arautegi Orokorra onetsi zuen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuak 176., 177. eta 178. artikuluetan xedatutakoa betez hura izapidetu eta egiterakoan”

Probidentzia hori betetzeko, argitara ematen da enkante iragarki hau, eta honako hau jakinarazten zaie lehiaketan parte hartu nahi dutenei:

1. Hona hemen besterenduko diren ondasunen deskribapena:

LOTE BAKARRA:

27 ZENBAKIKO HIRI FINKA. DUPLEX ETXEBIZITZA, Bilbon dagoena, Uribitarte pasealekuko 6 zenbakian, 3. solairuan A0991655Q Zenbaki Finkoarekin eta 4. solairuan A0991652P Zenbaki Finkoarekin, eskuinean-ezkerrean, igoerako zentzuan (eraikineko berezko 9. eta 10. solairuak), C letraz berezita. Haren azalera eraikia gutxi gorabehera 172,86 m² da eta sarrera 4. solairutik egiten da. Kuota: ehuneko 0,63. Erdiko eta eskuineko “Biombo” BIZITEGITARAKO ERAIKINAREN osagaia da, ISOZAKI ATEA deituriko hirigintza multzoaren barruan.

Bilboko 2 zenbakiko jabetza erregistroan inskribatuta dago, 2070 liburukian, 2016 liburuan, 196 orrian, 62587 finka zenbakiaz. Enbargo idatzoharra A letra, B eta C letraz luzatua.

BAT-BAT-039 ZENBAKIKO HIRI FINKA. 039 zenbakiaz seinalatutako GARAJE LEKUA, Bilbon dagoena, Uribitarte pasealekuko 6, 7 eta 8 zenbakietan, 4. sotoan. Angeluzuzena forma du, eta 13,60 m²ko azalera eraikia gutxi gorabehera. Kuota: ehuneko 0,09. A0991647Y Zenbaki Finkoa.

Bilboko 2 zenbakiko jabetza erregistroan inskribatuta dago, 2079 liburukian, 2025 liburuan, 154 orrian, 63381 finka zenbakiaz. Enbargo idatzoharra A letra, B eta C letraz luzatua.

BAT-BAT-085 ZENBAKIKO HIRI FINKA. 085 zenbakiaz seinalatutako GARAJE LEKUA, Bilbon dagoena, Uribitarte pasealekuko 6, 7 eta 8 zenbakietan, 4. sotoan. Angeluzuzena forma du, eta 24,30 m²ko azalera eraikia gutxi gorabehera. A0991725V Zenbaki Finkoa. Banandu ezineko eranskin moduan, 4. sotoan dagoen GANBARA bat dauka, gutxi gorabehera 6,79 m²ko azalera eraikia duena, T-64 izenekoa. Kuota: ehuneko 0,22. A0991897G Zenbaki Finkoa.

Bilboko 2 zenbakiko jabetza erregistroan inskribatuta dago, 2080 liburukian, 2026 liburuan, 64 orrian, 63473 finka zenbakiaz. Enbargo idatzoharra A letra, B eta C letraz luzatua.

2. Indarrean jarraituko duten kargak: bat ere ez.
 3. Enkanteko oinarrizko prezioa, lehenengo lizitazioan, 797.146,81 euro izango da (zazpiehun eta laurogeita hamazazpi mila ehun eta berrogeita sei euro eta laurogeita bat zentimo).
 4. Enkantea hasi eta gero, eskaintzen arteko tartea bost mila euro izango da (5.000,00 euro). Eskaintzak horretara egokitu beharko dira.
 5. Lizitatuzaileek nahiko izango dute espedienteari erantsi zaizkien jabetza tituluak eta Bilboko 2 zenbakiko Jabetza Erregistroko jabetza erregistratuzaileak emandako karga ziurtagiria, eta ez dute besterik eskatzeko eskubiderik izango. Agiri horiek Derrigorrezko Dirubilketako bulegoetan daude erakusgai.
 6. Enkantean pertsona fisiko edo juridikoek hartu ahal izango dute parte lehiatzaile gisa, behar bezala identifikatuta, zuzenbidearen arabera jarduteko gaitasuna badute eta ez badaukate hartarako legezko eragozpen edo mugarik.
 7. Lizitatuzaileek enkanteko oinarrizko prezioaren ehuneko 20 gutxienez jarri beharko dute gordailu gisa, enkantearen epaimahaian. Kopuru hori Foru Ogasunean sartuko da behin betiko, adjudikaziodunak errematearen prezioa ordaindu ezean. Horrez gainera, erantzukizunak ere eska dakizkioke lizitatuzaileari, gordailuan utzitako zenbatekoa baino kalte handiagoak sortzen badira adjudikazioak ondoriorik ez izatearen ondorioz.
 8. Enkantea ahozko eskaintzen sistemaz egingo da. Horrez gainera, gutun azalean itxitako eskaintzak ere onartuko dira, enkantea iragartzen denetik eta hori hasi baino ordubete lehenago arte –azken eskaintza hauek gehienekoak izango dira. Derrigorrezko dirubilketako bulegoan erregistratuko dira eskaintzak, eta, haiekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: Arabako Foru Aldundiaren aldeko txeke ziurtagia, gordailuaren zenbatekoaz; lizitatuzailearen nortasun agiri nazionala, eta, hala badagokio, daukan ordezkaritza egiaztatzen duen eskritura publikoa edo agiria. Agiri horien ordezkariak, kopia alderatuak ere aurkeztu ahal izango dira.
 9. Enkantea ondasuna adjudikatu aurreko edozein unetan etengo da, zorra, interesak eta prozeduraren kostuak ordaintzen badira.
 10. Erremategileak adjudikazioaren unean bertan edo horren ondoko bost egunen barruan ordainduko du gordailuaren eta adjudikazio prezioaren arteko aldea.
 11. Lehenbiziko enkantea adjudikatu gabe geratuz gero, ekitaldi berean mahaiak beste lizitazio bat egitea erabaki dezake. Bigarren lizitazioak lehenengoaren betekizun berberak izango ditu. Horretarako, ordu erdiko epea emango da, lehiatu nahi dutenek gordailua egin dezaten; ondasunen oinarrizko prezioa lehenengo lizitazioarena baino ehuneko 25 txikiagoa izango da. Mahaia, baita ere, zuzenean saldu eta adjudikatzeko izapideaz baliatu ahal izango da.
 12. Enkante bidezko salmenta honen ondorioz sortzen diren gastuak (agiri publikoa formalizatzekoak, erregistrokoak eta zergak) adjudikaziodunaren kontu izango dira.
- Hau guztia ALHAOn argitaratzeko agintzen dut, ohartaraziz ezen enkante iragarki honek jakinarazpenaren balioa izango duela bizileku ezezaguneko zordunentzat, baita arlo zibil edo administratiboaren ikuspegitik interesa duten beste batzuentzat ere.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 19a

Dirubilketa Zerbitzuaren burua

JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE